

**Goibekokale**  
ELGETAKO ALDIZKARIA

998ko urtarila, 31zk.

# BIZIRIK BAINO BALORATUAGO

F. IRIBAR  
SALBADOR 9-1ª EZK.

**Maderas Gallastegi, s. a.**

**MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA**

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA) Tel. eta Faxa: 6583061.



## Garbiñe Etxebarriari zuzendua (Prepotentzia, enbidia eta gorroto- rik gabe.)

Lehendabizi, pakea eta urte on 1.998rako Elgetar guztiontzat (Garbiñe Etxebarriarentzat ere bai).

**Goibekokale** aldizkarian (30 zenbakiduna) argitaratutako kartari erantzunaz, behean sinatzen dugunok esaten dugu:

1.- Eskola berriaren proiektua, Eusko Jaurlaritzak onartu eta Elgetako Udalak berretsitako proiektuan oinarrituta dago.

2.- Garbiñek, eskolaratu behar den Elgetako haur kopurua kontuan harturik, erinkuntza faronikoa dela azaltzen du. Zoritxarrez, ez ditu ezagutzen eskola bertako ikasgela eta zerbitzuetatik kanpo egin behar diren instalazioak: auditorium izenekoak (erabilpen desberdinetarako gela) eta beste erabilpen batzuetarako izango den 400 metro karratudun teilatupeko lokala.

3.- Ez da egon lurraren espropiaziorik. Etxeberria familiako lurrekin izandako jokaera, 3. sektoreko jabe bakoitzarekin eta guztiekin izandakoaren berdina da (lur zatiketa edo reparzelazioa). Hau da, Iñaki tabernatik Andra Mari Kooperatibarenokoa lur guztiak.

4.- Iñaki Etxebarriaren epaiketa prozesua. Patxi Basauri alkateak, bere aurka jasotako irainak salatu zituen Bergarako Epaitegian epaitegiak Iñaki Etxebarria kondenatu du.

5.- Garbiñek esaten du elgetarrak ez direla bere familiaz arduratzen, eta ararteko, Kultura Saila eta Bergarako talde arkeologiko batek bere interesei bizkarra eman diela.

Ez du uste Garbiñe Etxebarriak aipatutako erakundeek bere tesia ez bultzatzeko arrazoi bakarra Elgeta herriko interesen aurkakoa delako izan dela?

6.- Ingurua benetan negargarria dela esaten du. Nahiko adostasunean gaude. Hala ere, 97-12-29an onarturiko 1.998. urterako aurrekontuetan, ondorengoak onartu direla adierazten dizut: 22 milioi erabilpen desberdinetarako gela (Auditorium) egiteko eta 4 milioi Maala eta Torrealdea lotzen dituzten eskailerak egiteko.

Bestaldetik, Maalako parkea egokitzea espero dugu.

7.- Eskola proiektua burutzeko jasotako diruarekin zer egin den galdetzen du. Eskolako lanen proiektua, zuzendaritza eta egitea, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren kontu izan da, kostua 153.585.241 pezetakoa izan delarik. Elgetako Udalak ez du txanpon bakar bat ere jarri.

Penagarria da ez jakintasunak, haserrealdiak edo biak batera, norberaren interesak, defendatzera bultzatzea, herriko interes orokorren aurka joanaz.

Herriak aukeratutako udalbatzarkideok, interes orokorrak defendatzeko obligazioa daukagu, eta batzuetan erabakiak errazak ez izan arren, Elgeta herriaren alde borrokatuko dugu.

**Udaletxeko EA Jko zinegotziak**

*ZORIONAK*  
Angelita Atxukarro Otsailak 16  
Elena Elortza Otsailak 21  
Koro Gaztelu Otsailak 22  
*M<sup>o</sup> Elenaren partez*

## Nobliei Agurra

516 urte pasau dira ta oindiok be batu egitten dira San Sebastian egunian kofradixako 38 nobliak. Oin be egun haundixa da erentzat, baiña akaso ahaztu egiñ dittugu herritarrok. Eren omenez ta holako ohiturak behinik behin ez galtzeko, zuen himnua.

- Elgetako noble guztiak zure aurrian bildurik poz giroz gaude Sebastian beti zu ondrazteagattik zarra da ohitura hau dator lelengo etxietatik igaro arren urte asko galtzeko ez du asmorik

- **Nola datozen urtero begiraizu Sebastian beste lanak utzirik zu onratzeko ustian**

- Kapitan jauna gaur dogu zure eguna zelebratzen horgaitik guztiok alegre gerade hemen juntatzen batzuk daude kantatzen besteak kontentuz aditzen zure azañak honela danok dittugu gaur alabatzen

- **Nola datozen...**

- Munduan zenbiltzan artian ziñan agintari haundia zeruetara jua ezkerro elgetarren gidaria hara hemen belauniko nun dagoan herri guztia Iritxi egizkizu arren zeruan betiko gloria

- **Nola datozen...**

Ana Gillegi Etxebarria

AENOR

**ER**

Empresa Registrada

ER-714/2/96

# Estampaciones Elgeta

Estanpaketa orokorra,  
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,  
Serie handietan espezializatua.



Salbador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 61





## Emakumea hondotik gizonaren ondora "Titanic" filmean

**A**zken aste hauetan, zineman hiru filme ikusi ditut: "Hercules", "Titanic" eta "El Húsar en el tejado". Hirurak asko gustatu zaizkit. Gehien "Titanic" nahiz eta besteak ere ondo dauden.

Hiru filme hauetan, gauza komun pare bat dago: Alde batetik, nesken papera jadanik aldatzen doa, independienteak dira, ausartak, inteligenteak eta politak; bestetik, mutilen papera oraindik ez da aldatu: indartsuak, inteligenteak, independienteak eta neska arazoetatik ateratzeko beti prest daudenak. Beraz, eman dugu pauso bat aurrera, neskena. Hala ere, oraindik uste dut, hau da, zergatik ezin da izan alderatziz? Alegia, neska mutilari laguntzea?

Bai, filme hauetan, horrelako momentu-txoak ematen dira baina, garrantzitsuenak ez dira horiek, baizik eta mutilek egiten dutena. Baina honekin zera ikus dezakegu, aldaketak ematen ari direla, eta agian gero eta gutxiago entzungo ditugu: "mutil handiek ez dute negar egiten" edo "neskek ezin dute hori egin". Badakigu filmeek gudan eragina dutela, batzutan konturatu barik ere. Nahiz eta aldaketak pauso txikietan izan, aldaketa baldin badago, ongi etorria izan dadila (onerako badira behintzat).

Sonia Suarez Idigoras



## "Gizonezkoentzako" lepokoa

**E**z dut nire bizitza guztian artikulatu bat bera ere idatzi, baina saiatuko naiz nire pentsakera idatzita azaltzen.

Izenburua aukeratzekoan izan dut jadanik lehenengo arazoa. Nola esaten da 'Corbata' euskeraz? 'Korbata' ote? Hiztegiak horretarako daudela esango didazue baina ez daukat eskura. Baina joan gaitzen harira.

Askotan eman dizkiot bueltak neure buruari jatzeko hau dela eta ez dela: elegante joateko derrigorrezkoa al da berau eramatea? (Zer da elegantzia?), giza-mailaren batetara heltzen zarela adierazten al du? Zenbaiten aurrean berau gabe azaltzen bazara, errespetu falta al da? Eta benetan gustatzen ez bazazu, zer? Komodoa al da?...

Ziur zuetako askorentzat inongo garrantzirik gabeko ausnarketa izango dela baina, atera ditudan ondorioen arabera, askotan era batera edo bestera inposatu egiten den jatzeko bat da lepokoa.


Gainera, askotan, hipokresia hutsa da: bilera batetara joateko jarri eta handik atera orduko poltsikora telebistan agertzeko jarri eta kalean... Gertatu izan zait larunbatean eskolara joan eta maisua lehenengo aldiz praka bakeroakin ikustea (larunbata ez baita berez lan eguna beraientzat).

Okerrago oraindik: askok errespetu faltarekin ere erlazionatzen dute. Guztia, gizarte honek dituen hamaika eraginetako baten ondorioz. Kasu honetan ez dut uste oso eragin positiboa denik, 'trapu zati dotore bat' lepoan behera zintzilik eramateak ez baitu inongo xarmarik. Hori bai, udako 30 graduekin...

Bukatzeo, gustatzen bazaio, eraman dezalakorbatata batzuek txapela daramaten moduan, baina besteok utz gaitzela geure gustora jazen.

Okerrena da, beharbada egunen baten, gizar-tearen eragin horren pean eror naitekeela. Horixe da azken finean nahi ez nukeena, eta saiatuko naiz hala gerta ez dadin.

Iban Retolatza



Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honetako Elgetako Udalaren laguntza jaso du




Aldizkari honen argitaratzailea

## GOIBEKOKALE

**Argitaratzailea:** Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Komikia:** Igor Arizmendiarieta. **Horroroskopoa:** Aitor Ubera. **Kolaboratzaileak:** Sonia Suarez, Iban Retolatza eta Jabier Arantzeta. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Jone Oianguren eta Izaro Arrazola (Tel: 789085). **Banaketa:** Ikastola. **Tirada:** 650 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGAE. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

Goibekokalek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.





## 516 URTE ETA GERO BILTZEN JARRAITZEN DU SAN SEBASTIANEN KOFRADIA NOBLEAK

38 noble dira urtero San Sebastian egunean biltzen direnak, lehen 60 baziren ere. Noble hauek ez dira gaztelu eta jauregietan bizi: baserritarrak, langileak dira. Aparteko pribilegiarik izan ez bazuten ere, beraien maila nolabait bereizten zuten "pribilegio" batzuk izan dituzte mende hasiera arte: elizako lehen lerroetan aulkiak zituzten eta elizan bertan aldare bat dute (gaur egun ere) San Sebastian martiriaren irudiarekin.

1482an, Errege Katolikoek Kofradiaren arautegia onartu zuten. Kofradiako partaide izateko, justizia eta epaileak armekin edo beraien burua eskainiz defendatu behar zituzten. Horrek, armak izateko eskubidea ematen zien. Bestetik, kofradeek zuten egiteko bat 15 egunetik behin bereien santuaren aldarean meza ematea zen.

Gaur egungo kofradiaren egiturak garrantzia galdu badu ere, urtero biltzen dira San Sebastian egunean 38 kofradeak. Lehen egun handia izaten zen herritarrentzako ere, haurrek ere jai izaten zuten eta meza nagusian koru bat osatuz kofrade guztiei beraien ereserkia abesten zieten. Aitagandik semeegana pasatzen da kofrade izateko eskubidea, kasu askotan suinak edo partaide hilez gero alaba edo alargunak hartzen du. Dena den transmisio zuzenaren adibide bat ere badago, Oianguetarrena halaber. Azken 400 urtetan izan dira kofradiaren partaide zuzen.

Datorren urtean 37 izango omen dira eta urtero biltzen jarraitzeko asmoa dute, beraien ahaideek egin duten bezala.



Sebastian martiri santuaren antzeko irudi bat dago parrokan, ezkerreko altarean.

## AMNISTIAREN ALDEKO IGOERA

Iaz egin zuten bezala Elorrio, Elgeta, Arrasate eta Bergarako gestorek deiturik, eta "Errepresaliatu guztien alde" lemapean Intxortara igoera antolatutako zen. Antolatzaileen esanetan 150 pertsona bildu ziren jai giroan eta ekitaldi politikoan parte hartzeko. Ekitaldi politikoa hitzaldi batez ireki zen Elorrioko preso ohi baten eskutik Jose González Fernándezen eskutik hain zuzen.

10:00etarako heldu ziren lehenengoak eta salda eta sagardo ugari banatu zen jendea heldu hala. Txalaparta, soinua izan ziren eta baita bertsoak ere Ainhoa Agirreazaldegiren eskutik. Azkenean ekitaldiari amaiera emateko argazkia atera zuten, inguruko herriateko preso eta errefuxatuei bidaltzeko.



Amnistiaren aldeko taldeak urtarrilaren 4an egin zen Intxortako igoeran.

Antonio Rodríguez Da Cruz

Galdaragintza arina

Erremitteritza

**IAPAM**

Soldadura homologatuak

Hoditeria

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA

Tel: 76 81 01 Faxa: 78 90 14

**Goio Sarasua**

Igeltzeritza lanak

Teilatuak                      Sukaldeak

Etxaurreak                      Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156



## 98ko AURREKONTUAN 146 MILIOI

**53 milioi inbertsioetarako izango dira: 15 milioi diputazioak.  
Gainontzekoa udaletxeko gastu eta irabazietatik (38 milioi).**

Abenduaren 29an onartu ziren aurrekontuak, EAJko aldeko 5 botuekin. Iaz baino %35a gehiago izango du aurrekontuak. Proiektu garrantzitsuenen artean hauek:

1. Eskola azpian kokatuta dagoen auditoriumarentzat 22 milioi, 15 diputazioak emanda. Gabonetarako minimoekin martxan ipintzea nahi da: segurtasun eskaerak, argia, kalefazioa... Hasieran pentsatzen zen proiektua ezin denez burutu gutxieneko zerbitzuak eskaintzeko moduan ipini nahi da.

2. Inguru berdinerako, 4 milioi Maalatik Torrera doazen eskailerak egiteko.

3. Berraondokuan kale berria 37 milioi eta gehiena bertako enpresetako jabeen dirutik egingo da. (Elkoro eta Umbe)

4. Berrandokuan eta garajetako sarrera inguruan lautada zabaldu nahi da eta 30-40 kontxent-

zako aparkalekua ipini. 10 milioi kostatuko dira obrak eta udaletxerak ipiniko ditu.

5. Domingo Iturben egiten hasi ziren etxeen lurra salduko dira. Eraikitzea espero ziren beste 24 etxebizitzak saldu ez direnez, udaletxeari 90 milioiko zorra utzi zion. Orain ekimen pribatuaren esku utzi nahi du. Lurrak erosteko oinarriak otsailean aterako dituzte.

6. Pagatzako pabilioi eta lurren salmentak otsailean bukatuko direnez, Artekaleko kalean hasiko dira orain lanak. Eibarrerantz goazela, ezkerreko aldea enpresa txikientzat bultzatu nahi da eta lehen Elkoro tailerra zuen lurretan (orain garajeak daude) ekimen pribatuko etxeak egingo dira. Etxe hauek laster hasiko dira eraikitzen.

7. Jaietarako, 4.200.000 pta.

8. Baserrietarako bideak konpontzeko 3 milioi. %60 Nekazaritza Sailak finantzatzen du.

### Aldizkariko gabonetako loteria kobratzeko aukera.

Hilean zehar jende ugari pasa da aldizkaritik gabonetako loteria kobratzera. Hala ere, Martxoak 14an zapatua, orain arte etorri ez direnek aukera izango dute beraien saria jasotzeko.

### Otsailak 20an denok mozorrotuta

Aurten ere badatoz karnabalak. Hilaren 20an, barikua, mozorrotzeko aukera izango dugu elgetarrok.

Aurten lehenengo aldia eskolako haurrak bariku baten mozorrotuko direna. Gabon eta Santa Ageda bezperan kantura irtenda ateratako diruarekin lortutako merienda goxoa prestatuko diete gurasoek. Aurretik jokuak egongo dira eskoletan.

Gauean, gazte eta nagusien ordua izango da. Gazte Asanblada mexikanadak abesten dituen talde bat bilatzen ari da, kontzertua egiteko. Herriko tabernariak ere taberna mozorrotzeko asmoa azaldu dute. Jaiari amaiera goizeko hirurak aldera emango zaio gaztetxean antolatutako karaokean.



Motorzaleek elgetarrei jaiaren parte hartzeko gonbitea egiten die.

## MOTORIZALEAK OTSAILAREN 14AN

Azken urteetan bezala, Eibarko Moto Club Arratek antolatutako motorzaleen bilkura egongo da Hilaren 14 eta 15ean.

Iluntze aldera jokuak daude antolatuta. Afaria frontoi zaharrean izango da.

Antolatzaileek herritarrei dei bat luzatzen diete jai honetan motorzaleekin batera parte hartu dezaten.

# ZABALA

Lasao 6 Elgeta  
Tel: 768075-6 768225  
Faxa: 768201



# HERMANOS S.A.

EHIZARAKO  
ESKOPETA EGILEA



## PARTEITTIKO SAN BIXENTE JAIK. ERROMERIA ETA TXAKOLINA

Jendetza handia pilatu zen Parteittiko San Bixente jaiak ospatzeko asmoz bai mezetan eta baita ondoren egon zen erromerian. Hotzari aurre eginez, eliza eta elizpe bete jende elkartu zen pasa den urtarrilaren 24an. Elgeta eta Bergarako jende asko ikus zitekeen arren bertakoa zen nagusi, batez ere kanpoan bizi diren Parteittiar eta ondorengoak.



Erromeria Zabarteko aterpean.

Meza ondoren Elizpera urten eta bertatik jendea eta auzoa bedeinkatu zuen abadeak, ohitura zaharrari jarraituz. Gero jendetza Zabarteko atarira abiatu zen bertan erromeriaz gozatzeko eta salda eta txorizoarekin barruak berotzeko.

Ez dugu ahaztu behar Kataideko txakolina, aurten ere ederto sartzen baitzen eta, jendearen eritziz iazkoa baino hobea ei zegoen, biziagoa. Gure eskualdean produzitu eta komertzializatzen den ardu bakarra dugu Kataideko txakolina eta, Getariakoak bere aurkezpena San Antonetan egiten duen bezala, Deba Garaiko



Auzoaren bedeinkazioa elizpetik.

Txakolin honek Parteittiko San Bixenteak ditu, bodega sortu zenetik, bere presentaziorako aukeraturako eguna.

Giro aparta beraz, eta aurten lehenengo aldiz joan direnak berriz errepikatuko duten dudarik ez dago, halako jairik leku gutxitan izaten baita.

### Eskulanetako emakumeak sagardotegira

Otsailaren 21erako, zapata, antolatu dute Angiozarko Liburutegian eskulanetan dabiltzan emakumeek sagardotegirako urteera.

Beti lau pareton artean edertasuna sortzen aspertu nonbait eta Astigarraga aldera joango dira, kupeletako lurrunik eta sagarraren ur ardaustuak inspirazio bide berriak irekiko dizkielakoan.

Urteera hau egingo duten lehena izango dela diote, baina hurrengoak artearekin lotuta egiteko asmoa ei dute, ondo pasatzea-

rekin batera.

### Paris-Angiozar-Dakar

Azken hilabete terdian Angiozarko bidetik ibili denak badaki zer den telebistan ikusi ditugun Rallye famosoan pasa behar diren froga eta nekeak. Bi hilabetetan erreka bide erdian sortzen zitzaion munduko bide bakarra izan da GI-3360 hau, eta dena errealitatearekin bat egiteko bidea etengabe lokatsazten zuen kamioia gora eta behera ibili da, horrela tramo baten zikintzen zen autoa gero bide erdian sortutako erreka-ekin garbitzeko aukera emanez.

Angiozarko bideak dituen aukera guztiak ikusita, inongo beste bidek eskaintzen ez dituenak, bi proposamen ditugu: bata bidea patentatzea da, jendeari orduka entrenamenduetarako alokatuz (aberastu egingo ginateke seguru) eta bestea Paris-Granada-Dakar Rallyea datorren urtean Angiozartik pasa dadila eskatzea da (turismoa bultzatuko genuke).

Inolaz ere ezin duguna zera da, halako aukera izanda bertan behera lagatzea, gainera gabaz gehiago kobratuko genuke, erreka artifizialak behe lainoa sortzen baitu gabeen. Pena ura kendu diotela!!!

Taberna Zaharra  
jatetxea

Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar



Produkturik onenak,  
prezio onenean


Tel:  
76 80 98.

ALDI



# LEHIAKETA

Holako animalixak gutxitan ikusten dira Elgeta inguruan. Bueno, egixa esan Tximiñon bat edo beste badago baiña tira... Erretratuan dagona, Elgetan azkenengo aldiz zirkua egon zanekea da eta zelako malabaristia zan beroi? Ez zekan lunbagoik edo bizkarreko miñik. Kuriosua dala pentsauta etara dogu lehiaketan eta kuriosua eta ezaguna be izango da Elgetan ze jende askok asmau dau hau animalixau zein zan.



Txakurra dala esan dabenik be ez da falta izan. Hala ta be, erantzun zuzenan arrastuan ibili diranen artian dago gure irabazlia. Garbiñe Ormaetxea da oinguan afaltzeru juango dana.


Besteok argi ibili, idazteko erramintzan bat hartu eta hasi segiduan idazten.

Ze demondre da gure maketatzailliak desenfokau dabena?

Birentzako afaria dago jokuan. Bialdu kartak *Goibekokalera*, Salbador kalia 2, Kutur Etxia.



## KOMIKIA





## Jakingo baziñu aurten mundua amaittu egitten dala, zer egiño ziñuke?

Oiñtze urtia hasi dogula ta, pentsatzen gare aurten munduan amaieria izan leikela, hori dala ta pentsau dogu galdera hau egokixa izango zala.



Bihargiña (34 urte)

Jakingo baneu mundua amaittu egin bihar dala, lehenengo lehenengo biharra laga egiño neuke ta gero isla batera juango nitzake. Han, ahalik eta onduen pasauko neuke ta amaierian zain egon.



Bihargiña (37 urte)

Nik neuk, ahalik eta zorionsuen izateko gauzak egiño nittuke, nere jokatzeo moduakin jarraitxuko neuke. Ez nitzake biajian ta juango, bizitza beste era batera aldatuko neuke.



Etxeko andria (61 urte)

Ni neu ondo bizi naiz bai ta ez neuke ezer aldatuko nahiz ta seguru egon mundua amaittu bihar dala. Gaiñera holako gauzetan sekula ez dot larregi sinistu.



Jubilaua (75 urte)

Nik ez neuke ezer aldatuko, bardin jarraituko neuke. Igual momentua ailegau ezkeru zeozer diferentia egiño neuke, baiña gauza haundirik ez.




Bihargiña (50 urte)

Ez neuke ezer aldatuko, gauzak euren martxia dake ta holako gauza bategaittik ez dago zetan bizimodua aldatu. Bakoi-tzak bere martxan jarraitu biharko leuke.



Etxeko andria (46 urte)

Zehozer diferentia egiño neuke, ez dakitt zer, baiña bizimodua zehozertan aldatu egiño neuke.



Jesús Mari Montiel  
**ITURGINTZA  
ETA BEROGAILUAK**  
Artekale 3.  
Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE  
ETA BAINUGELETAN**

Berezitasuna:  
Buztana.  
Pintxo gozoak  
otartekoak.



tel: 768284



**♈ Aries:** Uste baiña lan haundixaua egiñ biharko dozu oiño hilabetian.

**♉ Taurus:** Zure gorputzak ez dau aguantauko horrenbesteko esfortsua ezta nahitxa be.

**♊ Geminis:** Diru aldetik ondo ibiliko zara baiña, ez dozu etxafleruak jaurtitzeko lain izango.

**♋ Cancer:** Amodio barri bat hasteko bidia dakazu. Zeure kalterako? Ikusi egiñ bihar.

**♌ Leo:** Izotzak zure hazurrak gogortuta lagako dittu. Izotza balitza hazurrak gogortzeko arrazoi bakarra gaitz erdi.

**♍ Virgo:** Ipurdixa galtzen juango zara baiña ez zara denboraz alleauko. Ta biharra be galtzeko zorixan egongo zara.

**♎ Libra:** Halako batian konturatuko zara ez zarela dana kontrolpian eukitzeko pertsonia izango.

**♏ Escorpio:** Animo tontorrera alleatze-ko ez jata/jatan asko falta ta. Laster haiz goixan.

**♐ Sagitarius:** Naibeste San Blas jan eike/eiken ez jata/jatan bape igarriko ta.

**♑ Capricornius:** Piska bat ikastia ondo etorriko jata. Segi liburuei begira eta ez telebisiñuai.

**♒ Acuaris:** Ezixu hainbeste edan, bes-tela zapaburuak hasiko jatzuz tripan ta.

**♓ Piscis:** Bide zuzenetik ibili hadi, bes-tela ez haiz sekula iñora be alleauko ta.

## Beñat Leanizbarrutia Bihargiña (21 urte)

- Ze egitten dozu oiñ momentuan? Lanian nabil, kotxienda-ko piezak egitten dittuan tallar baten.
- Etxian laguntzen dozu? Batzutan. - Zetan? Piezak egitten ta sukaldian be bai.
- Zeiñ da juerga on bat egitteko herririk gustokuena? Durango.
- Zegaittik? Ambiente ona egoten dalako.
- Ze sorpresak egiño lotzuke ilusiño haundixena? Loterixia tokatziak.
- Etxetik etortzeko ze nahixau: bizikletia ala motorra? Motorra.
- Kirolik gustokuena? Futbola.
- Zelakua da zure ametsetako neska? Txikixa ta potolatxua, politta.
- Azkenengo irakurri dozun liburua? 100 metro. - Ta azkenengo erosi dozun diskua? Aiako trikita.
- Plaia nudista baten sekula egon zara? Bai. - Esperientzia politta izan zan? Bai. - Berrero juango ziñake? Bai, juango nitzake.

- Zenbat denbora panderua joten? 5 urte.
- Ze nahixau dozu, Ixiarren "panderua" ala Mainerren "panderua"? Ixiarrena.
- Zelako kantzontziluak erabiltzen dozuz, hankadunak ala "slip"ak? "slip"ak.
- Ze marka takua zan lehenengo euki ziñuan bizikletia? BH.
- Nun ta zelan amaittu ziñuan urtia? Elorrixon ta neska batekin.
- Erretzen dozu? Bai. Zenbat? Egunian pakete bat.
- Bizitzak ondo tratau zaittu? Bai.
- Ze animalixakin identifikatzen zara? Llama batekin.
- Ze nahixau dozu, papelezko paiñue-luak ala telazkuak? Telazkuak.
- 2.000. urtian mundua amaitzen dala jakingo baziñu, ze egiño ziñuke? Diru guztia gastau ta ondo pasau juegatik juegara.



**IBAIBA-RRIAGA**  
GARRAIOAK

Tel: 768072  
Salbador zeharbidea 2  
ELGETA

M<sup>A</sup> Karmen  
Lenzeria

Lentzeria eta  
kosmetika gaiak

Salbador zeharbidea.  
Tel: 789040

Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

**TABERNA**

tel: 768273



## TXERRIA HILDA BIZIRIK BAINO BALORATUAGOA

Urdaiazpikoa, txorizoa, txarri txuletak, solomoa, odolosteak, belarriak... Nork ez ditu gustoko aipaturiko jateko gehienak, edo denak? Denok, jakina. Gutariko askok ordea, mahai gainean jateko prest daudenean ikusten ditugu soilik, edota, asko jota, harategian. Baina duela urte gutxi arte etxe bakoitzak bere txarriboda izaten zuen. Ospakizun eguna izaten zen, etxeko denak elkartzen ziren eguna. Gaur egun, leku gutxitan bada ere, ohiturak bizirik dirau.

Txerria animalia bitxia da benetan. Bizirik dagoenean, oso gutxi baloratzen den animalia dugu, zikina edo nazka hitzekin oso erlazionatua. Hilda dagoenean berriz, guztiz aldatzen da txerriaz



Gibela jan, bihotza eta birikixekin biriki-txorixuak egin gero egosteko eta gainontzekoa botatzeko.



Sei gizonetzko beharrezko izan ziren zerria odolusterako orduan.

dugun kontzeptua. Urdaiazpikoa, solomoa, muturra... Urte guztian zehar etxe askotan izaten ditugu bai bazkaltzerako orduan edota afaltzerako orduan ere.

Zein prosezua jarraitzen dute jateko hauek guztiak gure ahoetara heldu arte? Nola egiten dira odolosteak? Eta txorizoak? Nagusiek ondo baino hobeto jakingo duzue prosezua guztiaren berri, baina seguruenik, gazte askok, ohitura zahar honi buruz ez dakizuela gauza handirik.

Lehenik, odolustea

Txerribodan, lehenengo pausoa eta

garrantzitsuena txerriaren odolustea izaten da. Ezinbestekoa da animalia ongi odolustea, gaizki odolustuz gero, labana paletilan edo bihotzean sartuz gero, gaizki gorpuzteko arriskua baitago. Prosezua hau burutzeko jende askoren beharra izaten da, matarifeak txerriari paparretik gantxoarekin eutsi eta leku beretik labana sartzen dion

bitartean, baserriko gizonetzkoek txerriaren atzeko eta aurreko hankak eutsi behar izaten dute,

*Txerria etxerako izaten bada ere, beronen zati bat analisatzera eramaten da ezustekorik egon ez dadin.*

**OSTATU**  
**JATE TXERRI**

Gudarien Bide  
Tel: 76 80 23  
ELGETA  
Eguneko menua 800 pzta.  
Karta.

Andoni Bolinaga  
METALAK  
FS7 18  
Tel - Fax 76 80 64  
ELGETA



nahiko animalia indartsua baita. Isuritako odola balde batetan bildu eta eskatzera eramaten da odolosteak egiteko. Ezinbestekoa da odolari bueltak ematea odol baturik ez egiteko.

Txerria hil bezain laster, ohiturari jarraituz eta barruak garbitu ondoren, hamarretakoa egiten da, hala egin da behintzat Jarikotxo baserrian : berakatz zopa eta hil berri den txerriaren gibela.

Nahikoa jan ondoren, gizonek animalia kanpora ateratzen dute lehortutako ira edo garoarekin su emateko. Honekin txerriak dituen ileak eta azaleko zikinkeria guztiak garbitzen dira. Azala erre ondoren, erditik bi egin -hobeto hozteko- eta urkila deritzon hiru puntako makila batetatik zintzilik uzten da txerria, gorpuztu dadin.

Urkilean egoten den denboran -24 ordu gutxi gora-beherakontu handiz ibili beharra dago eulien pikadurak ez jasateko, ondorioz arrak irten baitaizkioke txerriari, okela galaraziz. Hurrengo egunean txerri osoa zatitzen da.

### Emakumeen txanda

Txerri zatiketarekin gizonen lana amaitu egiten da emakumeena hasiz. Emakumeak dira odolosteak eta txorizoak egiteaz arduratzen direnak. Odolosteak egiteko, txerriaren odolari gatza botatzen zaion bitartean, txerriaren grasarekin, ondo biguntzen da kipula sar-



Ez zen erreza izan txerriak altxatzea, 107kilo bata eta 105 bestek.

taginean. Masa ondo egiteko odolari kipula, pipermina eta oregano piskat botatzen zaio. Bukatzeko, egosi eta denbora bat utzi ondoren txerriaren hesteetan sartzen dira. Lehen hildako txerriaren hesteak garbitzen ziren eta lan handia izaten zen. Gaur da eguna hesteak egosiak erosten direla dendan, lana erraztearren.

Txorizoak egiteak denbora tarte luzeagoa eskatzen du. Masa egin ondoren hiru edo lau eguntan utzi egiten dira. Egun horiek igarotakoan txorizoak egin eta zintzilik uzten dira. Hamar egun barru jateko prest daude.

Gehienetan txerria etxerako izaten bada ere, txarriboda egiten den lekuetan behar diren neurriak hartzeaz ere arduratzen dira. Horrela txerriaren zati bat analisatzera eramaten da ezustekorik egon ez dadin.



Gizonak beste lan edo gehiago egiten dute emakumeek txarribodan.

*Txerria etxerako izaten bada ere, beronen zati bat analisatzera eramaten da, ezustekorik egon ez dadin.*

**IRAMA**  
Instalazioak eta mantentze lanak



24 orduko zerbitzua  
mensatel: 900282828  
abonatu: 247262  
tel: 789057-768025

**EROSLE**



M. Asun Agirre  
Salbador 26. Tel: 768190



**KONTXI  
ARRANDEGIA**  
Salbador 5 Tel: 768009



## Zeramika ikastaroa ikatolan

6. mailakook elkarrizketaxo bat egin diogu adinean gu baino hiru urte gazteagoak direnei. Zeramika tailer batean aritu dira eta oso gustora ibili direla aitortu digute. Hamazazpi ikaslekin parte hartu dute Arantxak emandako ikastaroan.

Hirugarren eta laugarren mailako neska-mutikoak zeramika ikastaroa egin zuten.

Barikuero, ordubietatik laurak arte egoten ziren Kultur Etxean dagoen zeramika gelan. Zeramika ikastaro hau azkenhiru hilabete hauetan egin da. Hamazazpi ikasle egon ziren eta denak



izan dute zerbait egiteko aukera.

Esan digutenez honela egiten da: Buztina plastiko batean egoten da eta bakoitzarentzako zati bat hartzen da. Buztina nahiko bustita egoten da eta mahai baten gainean tabla bat ipini eta buztin hori landu eta forma ematen zaio. Buztin zati horrekin figurak egin daitezke: pitxarrak, pailasoak eta beste hainbat gauza. Azkenik astebetetz lehortzen utzi eta gero labean sartzen da. Labean sartzea oso garrantzitsua da gero apurtu ez daitezen eta pintu-

ra hobeto hartu dezaten.

Egin dituzten gauzak apaingarriak dira: Pailasoa, hostoak, arkatzak gordetzekoak...



Zera esan digute: "nahiago dugu buztina lantzea margo-tzea baino"

Denak oso pozik daudela esan digute eta oso ondo pasatzen dutela. Gainera etxean ere ilusio handia eta arrakasta itzela izan dutela diote.

Benetan gauza politak egin dituzte. Hori ikusteko pare bat argazki atera ditugu idatzi hau egin aurretik.

Ez da makala egin duten lana.

Esti, Aritz eta Iratxe  
6. mailakoak



Tel: 76 81 31  
M<sup>a</sup> Jesus  
Arrazola

**VIVO**  
Janari  
denda

**BILTEGI  
DENDA**

Zugandik  
gertu behar  
dugun beste

Salbador 24 Tel: 768206

Kartetan  
jokatzeko giro  
egokia

Tel: 768093

Kopa bat

**Paxi Taberna**



## ITSAS APOA AMERIKAR ERARA Haizea Taberna



### NOLA PRESTATU:

Hasteko, itsasapoari azala kendu solomoekin bakarrik geratu arte.

Zartain batetan olio berotu eta almejak bertara bota zabaldu arte. Ondoren, ganbak eta itsasapoa gehitu.



Zartainkada arrain zoparekin estali. Tomate pisatutako erretina, nahi den kolorea lortzeko. Azkenik, koinak apur bat bota.

Bospasei minututan egiten laga, horrela alkohola lurruntzen da eta arrainari gozagarrien gustua itsasten zaio.

**Arrain zopa egiteko:** barazkiak (porrua, kipula, azenarioa...) eta itsasapo buruak batera egosi. Buruak atera eta mamiak kendu. Kendutakoan pistolia zopatu eta maminak gehitu. Ondo egosi eta batitzekoarekin pasau, krema moduan laga arte.

### OSAGAIK: ( 2 lagunendako )

- Kilo ta erdiko itsasapoa.
- 8 almeja.
- 4 ganba.
- Tomate frijitua.
- Perrexila.
- Oliba olio gradu batekoa.
- Koinaka.
- Arrain zopa egiteko: barazkiak, pistolia, itsasapo burua...



### GOMENDIOAK:

- Arrain zoparen lekuan itsaski krema erabili daiteke.
- Arraina ondo eginda dagoela ikusteko sardeska sartu eta errez ateratzen denean egongo da puntuan.

# HAIZEA TABERNA



## ANA LIBURUDENDA





## KANPOKO TALDE GEHIAGO AURTENGO FUTBITOTAN

Aurten 4 kanpoko talde daude, Elgetakoak gutxiago dira, 3 bakarrik. Kanpokoan artean talde berri bat aurkitzen dugu Bar El Arco, nahiz eta bertako jokalaria batzu, aurreko txapelketan txapel-dun izandako Bar Paseo-ko jokalaria ohiak izan. Durangoko bi talde hauek gain Iurretako Urien eta Angiozar taldeek hartuko dute parte.

Elgetako taldeetan Hi Hartik Hortik eta Luzelekrikanpalu dira aurreko urteetatik mantentzen direnak. Hirugarren taldea aldiz Patxi taberna eta Txapelako jokalariek osatzen dute.

Futbito Txapelketari Txapela & Patxi eta Luzelek taldeek

eman zioten hasiera, aurreko zapa-tuan. Lehenengoak nagusitu ziren 4 eta 2ko emaitzarekin, txapelketa-ko lehenengo gola Etorrek sartu zuen. Partiduan ez zen joko handirik ikusi eta nahiko borrokatua izan zen, jokalarien artean hikamika ugari egon zen. Horrela batzuek urteroko jarrera ez dutela aldatu erakutsi zuten. Bigarren partidua H.H.H eta Bar El Arcok jokatuta zuten. Lehenengo zatian Durangaldekoek aukera ugari izan zituzten, nahiz eta lehen zatian gol asko ez sartu. Azkenean emaitza 6 eta 2koa izan zen Durangaldekoen alde. Lehen asteko azken partidua Bar Paseo eta Urienen artekoa izan zen. Iazko Txapelkunek ezin izan zuten irabazi, Urienekoak 6 eta 2 nagusitu baitziren.



Iazko portaera berarekin jarraitzen dute. Lehenengo partidua hikamikaren erakusgarri.


## ESKOLAKO MUTILAK HURRENGO FASERAKO SAILKATZEAR

Eskolarteko kiroletan, mutil eta neskek nahiko ondo aritu dira hilabete honetan. Mutilak bi partidu berdindu eta beste guztiak irabazi dituzte orain arte. Momentu honetan Arrasateko 4 talde, Bergarako 3, eta Ezkoria, Aretxabaleta eta Antzuolako taldeen aurka ari dira jokatzen. Mutilak horrela hurrengo fasera pasatzeko aukera asko dituzte, fase horretan gipuzkoako beste ikastolen aurka jokatuko dute.

Neskek aldiz lehen garaipena Almenen aurka lortu zuten 2 eta 1eko emaitzarekin. Bi talde hauek partidu guztiak beste taldeen zelaietan jokatzen dituzte, Elgetan ez baitago behar bezalako zelairik, beraz zapaturu inguruko herriak ezagutu eta lagun berriak egiteko aukera dute.

Gaztetxoagoak aldiz saskibaloia eta futbolekin aritu dira. Segituan eskubaloian jokatuko dute, ea ba beste bi kiroletan beste saiatzen diren.

Bestalde aipatu otsailan hasiko dela eskolarteko pilota txapelketa.



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta  
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

**TAPEM, S.A.**

**Trokelak eta estanzazioa  
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK**



## ELKORO ETA ETXANIZ BINAKAKO TORNEOAREN FINALERDIETARAKO SAILKATU DIRA

-Aitorrek eta Jokinek erraz gainditu zituzten Olaizola eta Arretxe ligazkako azken partiduan-

Uste baino arazo gehiagorekin izan bada ere Aitor Elkoro eta Jokin Etxaniz finalerdietarako sailkatu dira. Bikote gipuzkoarrak eskuan izan zuen sailkapena Labriten, Nagore eta Lasa III.aren aurka jokatu zuten partiduan, baina Etxarri Aranatzeko atzelariak partiduko bigarren zatian emandako erakustaldiari esker bikote nafarrak garaipeña lortu zuen eta ondorioz azken ihardunaldiari itxaron behar izan dute sailkatzeko.

Azken partidu honetan, guztiz kontzientziatuta atera ziren Aitor eta Jokin eta partidu oso onik egin gabe, hori bai seriotasun handiz, 22 eta 14 menderatu zituzten Arretxe eta Olaizola. Aipagarria aurrelari bergararrak ligazka hone-

tan erakutsitako maila. Aitor berriz, gaizki aritu ez bada ere, ez du berarengandik espero dugun guztia eskaini, batez ere eskuineko eskuan izan dituen arazoengatik.

### "Interclubs" Elgetara

Bestalde, Ozkarbik txapelak irabazten jarraitzen du. Gipuzkoako "Interclubs" txapelketan Aitor Ubera eta Iñurrategik txapela lortu zuten, finalean, Muruamendiarrak- Idiakez bikoteari 10ean utzi ondoren.

Ez zuten zorte berbera izan Arantzetak eta Gutierrezek (Ubera). Hauek 22 eta 21 galdu zuten finalean Oiala eta Loiolaren aurrean.

Aldi berean Euskal Liga ere martxan da. Ezin daiteke esan gauzak ongi egiten ari diren gure ordezkariak. Ohorezko mailan jokaturako lau partiduetatik hiru galdu dituzte eta jubeniletan, Peñalverrek, hiru partidu jokatu eta bakarra irabazi du, azkena hain zuzen ere abadiñoko Areitoren aurka (18-4).

Deba Arroan berriz, bi ihardunaldi jokatu diradagoeneko. Aipatzekoa Mikel Ormaetxearen debuta. Elgoibarreko ordezkarien aurka izan zen eta nahiko urduri ibili bazen ere, lehen partidua izateko ongi aritu zela esan behar. Azgarri bikote zuela 22-20 irabazi zuten.

## ESTAMPACIONES ELGETA: 13 IHARDUNALDI 12 GARAIPEN

Hamairu ihardunaldi jokatu dira jadanik Eibarko Saskibaloi txapelketan eta hirugarren ihardunaldiaz geroztik elgetarrek oraindik ez dakite zer den galtzea. Arratxa on horrek sailkapenen nagusian du bere islada eta lehengo itzulia amaitzeko bi partiduren faltan lehenengo postuan dago beste bi talderekin berdinduta.

Azken ihardunaldian bosgarren kokaturik zegoen "The potes" taldea garaitu zuten. Polikiroldegiko giro hotza zela eta partiduan sartzea kostatu zitzaizen arren, jarraian sartu zituzten saskiraketen bidez atsedenaldira hamar puntuko aldearekin iritsi ziren. Azkenean eta arauzko hoge minutuen amaieran markagailuak hamalau puntuko aldea erakusten zuen, 44 -30.

Elgetarrak dira txapelketan saskiratze gutxien jaso duten taldea eta horri eutsi nahian ekingo diote erabakigarria izango den bigarren itzulari.



ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETIA ETA  
ELJAZIO SISTEMAK

Berraondokua 2/g 20690 Elgeta  
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)  
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

Hozkailuak eta  
izozkailuak  
aire giro-  
tua.

Salbador 21  
Berraondokua 7  
Tel eta faxa: 78 90 46



Iragarri  
zaitez.

Tel:78.90.85  
Faxa: 789043



## AZKUNETA

(Arezkurenaga)

### Ermita: San Martin de Tours

**Jaia:** Azaroaren 11n.

San Martin egunetik hurren gelditzen den zapatuan ospatu dute azken urtetan jai eguna. Urtetan oso ahulduta egon den jaia izan arren berriz ere indartu da azken hiru urteotan.

Eguerdian meza egoten da eta ondoren erromeria soinu-joleekin eta gonbidapena etorritako guztientzat.

Orain dela gutxirarte maiordomo aldaketa hurrengo domekan egiten zuten: urteko kontuak garbitu eta ondoren baba zuri jana egiten zuten.

#### Baserriak eta etxeak:

- Migelena (Arezkurenaga suso)
- Berrandona (bi bizitzaduna)
  - Pagaldai
  - Gaztelu

- Aldekona
- Frantzina (Jaunzuriena)
- Elizalde (bi bizitzaduna)
  - Retolaza
  - Alustiza

- Errotia (Errotiaga) hutsik
- Elizaldebarri
- Askasibar-enea (Migelenako etxe berria)
- Frantzinabarri

Bergararako bidean kaletik kilometro eskasera aurkitzen da Azkuneta edo jatorriz Arezkurenaga den auzoa. Mendeetan zortzi etxe bizitza eduki baditu ere Azkunetak, azken urteetan hamaika edukitzera heldu da, nahiz eta horrek biztanle gehiago ez ekarri. Etxe berriak egite hau bertakoen inizatibaz gertatu den zerbait izan da gainera. Jaiotetxetik hurrinegi bizi nahi ez eta bertan egin etxea.

Bailaran ez ohizkoa den egitura du auzoak, etxe guztiak elkarren ondoan, eliza erdian... herrixka itxura du, kale eta guzti. Egitura honek abantaila batzu ere ekarri dizkio auzoari: argi publikoa dute, suteetarako ur sistema ezarria larrialditarako mangera eta guzti, autobus geltokia,...

Azkunetak, beste auzo batzu bezala, elkar bizitzarako hain-

bat antolamendu eduki ditu: ganauentzako hermandadea, argi indarra sortzeko zentrala, errotak, bideak, etabar... Auzo antolamendu hauek azken urtetan eraldatuz joan dira, izan ere batzuk bere funtzioa galdu egin dute eta, esate baterako ganaduen hermandadea ganauak baserrietan gutxitu ahala desagertu zen, orain dela hamabost bat urte.

Argi etxea Azkunetak Errekaldia eta Parteittirekin batera eduki zuen: Hiru-Auzo du izena eta Loidi-Etxebarri baserrietik gertu dagoena da. 1945. urte inguruan argi etxe izateari laga egin zion, Bergaratik ekarri zen linea berri batek lana kendu zion eta. Orduan Loidi-Bolun zegoen errotaren esku-bideez jabe egin eta hiru auzoen artean errota bihurtu zuten, gaur egunerarte ere funtzionatzen jarraitzen duelarik. Duen bitxikeria bat zera da: presa bakarra eduki behar-

rean bi presa dituela. Batak, urak Angiozar errekarik hartzen ditu; besteak, berriz Hirutorreta gainetatik datorren errekatxotik.

Presa hauetatik Bergarara edateko ura ere hartzen zen, Urkuluko ura ekarri zen arte.

### San Martin de Tours

Tourseko obispoari eskeinitako eliza hau Bergaratik Bizkaia aldera zihoan bidearen alboan dago kokatuta (1868an Bergararako bide berria egin zuten arte, hemendik pasatzen zen trafiko guztia). Bide hau Bergarako Ozeta inguruan abiatu eta, Angiozarko bailara osoa pasa ondoren, bitan banatzen zen Elizamendi ondoan, bide batak Asentzio gainetik Elgetara jarrituz eta besteak Gallarra baserrietatik San Bartolome zeharkatuz, Bizkaira pasatzen zelarik Sagasta baserriaren ondoan. Kamino hau Santiagora kostako bidea egiten zuten peregrinoek erabilia izango zen garai hartan, izan ere Urola Bailaratik Bizkai aldera joateko bide egokiena hemendik pasatzen bait zen.

Gainera, ruta honetan hainbat ondare arkeologiko eta baita zenbait eraikuntza erlijioso, berri dokumentatuekin, ere aurki daitezke zeregin horretara, peregrinoen laguntza eta babeserako, zuzenduak egon zirenak. Angiozar bailara honetan ere peregrinazio bideko Santuak diren San Kristobal, San Martin eta San Bartolome aurki ditzakegu.

Egituraz inguruko beste elizatzoen egitura berbera du: oin edo planta errektangularra (8,5x5,2), nabe bakarrekoa eta atariarekin (5,2x3,3). Aldare nagusiak San Martinen imajina gotikoa du eta alboetako aldaretxoetan San



Azkuneta, atzean Angiozarko kalea.



Sebastian alde baten eta San Roke bestean. Hiru imajinak XVI. mende hasierakoak izan daitezke.

Santu hauen azpian bi goierliebe daude, gotiko estilokoak. San Lukas eta San Mateoren irudiak azaltzen dira eta, Sagrarioko Jaunaren Igokundearekin batera, aurrez beste nonbait egondako erretaularen baten zatiak direla dirudite, behar bada Angiozarko San Migel Parrokiakoak.

Jaiak azaroaren 11n izaten dira, San Martinen "veranillo" a eguraldi aproposa lagun izaten delarik.



San Martin. Alboan aspaldiko Bizkaiarako bidea.

## Migelena (Arezkurenaga suso)

Gaur egun Migelena izenarekin ezagutzen dugun baserriaren jatorrizko izena Arezkurenaga-Suso edo Arezkurenaga-goikoa da. Bere esanahia Aritz-goren-aga izan-go litzateke.

Arezkurenaga abizenak etxe honetan du jatorria eta Ahaide Nagusien arteko gerratean, Ganbotarren aldeko ziren bi Arezkurenagatarrek hartu zuten parte, 1448an, Arrasate erretzeko ekintzan. Martin de Arezkurenaga eta Rodrigo de Arezkurenaga izan ziren Euskal

mendean etxe hau dagoen tokian bazela jadanik "casa solar" deitzen den etxe bat, eta aldaketak eta berreraikuntzak medio, gaur eguneraino heldu zaigun etxea dugula. Hau indartzeko sarrerako arkuko ateburuan azaltzen den data ere lagungarri dugu: 1512. urtea. Arezkurenaga haien ondorengoak bizi dira gaur egun ere Migelengan, 600 urtetan gutxienez, etenik barik, familia berbera bizi baita etxe honetan. 1.600 urtearen inguruan aldatu zen Arezkurenaga abizenetik Askasibar abizenera, etxe alaba zen Maria de Arezkurenaga anderea Miguel de Askasibarrekin ezkondu zenean.

Miguel Askasibar hau eragin handiko gizona izan behar zuen

nonbait zeren, 1678. urtean haren iloba zen Joseph Askasibar, Maria Josepha Arangurenekin ezkontzen denean egiten diren ezkontza kapitulazioetan Migelena izenarekin izendatzen da etxea, gaur egunerarte jarraitu duelarik izenak.

XX. mende honen erdian Francisco Garitano Askasibar Irene Askasibar Loitirekin ezkondu zenean eman zen 350 urtean gertatutako bigarren abizen aldaketa.

Historia interesgarria duen etxea izanik ondare interesgarriak ere baditu: erlategia, upategia, dolarea,... gaur egun ere jarraitzen dute Migelengan sagardoa eta txakolina egiten (biak edarrak) etxean duten tresneriarekin. Ohitura aspalditik badatorkie ere, mende honen hasieran etxe jaun zen Felix Askasibarrek zeregin handia eduki zuen. Fruta arbolentzako zuen gusto eta afanak froga asko egitera bultzatu zuen, barietate asko landatuz sagarretan eta maderitan. Ahalegin honek bere frutitua eman zuen: 1914an Zarautzen egin zen Probintziako txapelketan bi zilarrezko domina atara zituen, bata sagardotarako sagarrari eta bestea mahairako sagar eta maderitan.

Felixen esperimentoetatik etxe ondoan duten olibondoa gelditzen da landare bitxi bezala, urtero azeitunak ematen jarraitzen duelarik. Laranja arbola ere eduki zuten eta laranja edarrak jan ere bai. Gaur egun limoneroak dituzte.

Lorenzo Askasibar 1970 ingururarte Angiozarko Alkate izan zen eta Bergaran kontzejal. Urte latzetan alkate izanik eskola berriak egitea lortu zuen Angiozarran.

1980. hamarkadan Arturo Garitanok eta bere emazte Domi Soroak etxe berria egin zuten, Askasibar-enea izenarekin, Migelena etxaburuan eta bertara bizitzera pasatu. Orduetik Migelena du etxebizitza erabilerarik..



Migelena baserria.

Herriko Ertaroa astindu zuen ekintza ikaragarri hartan parte hartu zutenetarik bi zaldun beste 71 elgetarrekin batera. Ekintza haren ondorioz dorretxe guztian lehenengo pisuraino botatzeko eta etxe jaunak desterrura bidaltzeko agindua zabaldu zuten Erregeak eta Gipuzkoako Juntek. Ia 50 urtetan egon ziren Arrasateri ordaintzen orduan egindako kalteak.

Beraz, esan daiteke XV.



## Ez ei zetorren larrutatik ta...

Ez ei zetorren larrutatik ta, bere heriotziak ez da inor enterau. Bera pikete batian zeguan, bere lankidiekin, bere deretxuak defenditzen, ta etorri kotxe bat ta aurrian eruan zeban.

Bera minerua zan, Asturiasko Mieres herrikua ta, bere eskubidien alde beste biderik izan ez, ta huelgan zeguan, bere lankidiekin. Alarguna ta bi ume laga dittu honek be,

baina honekin ez gara danok enterauko, hau ez da notizia.

Fan zan udan, bere bizitza guztian ezkontzia besterik egiñ ez zeban andrioi hil zanian, (bai neska, Ingalaterrako sudur-luzie, beste belarrihaundixan andria edo, hoixe beroi), ba orduan danok jakin

giñuan zer pasau zan. Ez zeguela deratxorik, andra koitxauak larrutan be ezin gustora egiñ, iñon dian periodista danak bere atzetik, ta ha zan disgustua ha! Ha bazan notizia inportantia.


Eta oin, hemendik hurrau, kotxe batek hil dau minerua ta hau ez da notizia. Honek mineruonek ezkontzetik aparte lana be egitten zeban, beste sudur-luze horrek baiño biaeje gutxiau egiñgo zittuan

segurutik. Ta munduan pasautakuan barri emon bihar doskuenek erabaki dabe honen berri letra txikittan emotia. Zegaittik ete da?

Baiña oin notiziak Ameriketetan dare. Polakua Cubara fan da ta laster enterauko gara danok berai esker Cubara askatasuna iritsi dala, berari esker cubatar gixajuak, oin arte mezetara fan ezin zianak, oin mezetara fateko aukeria dakela.

Baiña hemen kasuan be ez doskue esango Cuba dala H e g o Amerika osuan analfabeto gutxien dakan herrixa ta ez da inor pentsatzen hasiko hori zegaittik ete dan.

Jabier Aranzeta



7  
L  
E  
A  
D  
A  
9  
N  
D  
E  
G  
9  
A

M<sup>a</sup>  
**ESTHER**

Tel: 76 81 67

**E  
P  
HARATEGIA  
A  
S  
T**

San Roke 6  
tel: 768168.

**LENIZ**

**AUTO ESKOLA**

Arana, 13 Tel: 714186      Aldai, 9 Tel: 794604  
**ESKORIATZA      ARRASATE**

**GRONDO**  
elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.  
Tfnoak: 797815/771042 Faxa: 771476 ARRASATE.





Argazkia: Ana Mari Zabalondo

## Eskola lagunen erretratua

Eskola lagunak makiñatxo bat bidar etara doguz hemen atalian. Oinguar be halakotxe bat etartzeko bidia zabaldu dozku Ana Mari Zabalondok eta guk gustora asko etara dogu.

1956-1957 urtetako eskola lagunen erretratua da. Normalian eskolia bada be atzian agertzen dana, orduko argazkilarixak paisajiak be merezi zebala pentsau ta aurrrian dakazue etara zeban erretratu elegantia.

Erretratuan berrogeta hamarren bat neskato dare, honetxek dira euren izenak:

Tente darenen izenak, ezkerretik hasi eta eskumanuntz: Iñaxia Arantzabal, Elena Arotzena, Mari Karmen Etxebarria, Begoña Telleria, Mari Asun Agirre, Ana Mari Zabalondo, Aurora Iturrigaztelu, Itziar Vázquez, Mari Paz Bolinaga, Edurne Alberdi, Mari Tere Erostarbe, Gema Etxebarria, Rosarito Agirre, Nerea Arantzeta, Arantxa Aretxaga, Bitori Elorriaga, Mari Asun Arotzena eta eskumaren dagona Belen Arantzeta.

Belauniko darenak: Mari Cruz Egizabal, Mari Sol Alberdi, Margarita Lazpiur, Maribel Agirre, Ane Miren Alberdi, Maria Mercedes Gorosabel, Begoña Gorosabel, Miren Maite Zabalondo, Sagrario Bolinaga, Mari Jose Irazabal, Jesusuita Retolaza, Kontxita Arantzeta, Maria Pilar Askasibar, Eugenia Elortza, Lourdes Elortza eta Mari Karmen Arantzeta.

Jarritxa darenak: Juli Oianguren, Mari Karmen Oianguren, Mari Isabel Arantzeta, Iñaki Etxebarria, Jose Luis Zabalondo, Pedro Mari Gorrotxategi, Mari Kontxi Gorrotxategi, Garbiñe Etxebarria, Mari Mertxe Legaristi, Alberto Agirrezaldegi, Alberto Sarasketa, Jose Antonio Arrazola, Begoña Arotzena, Mari Mertxe Legaristi, Alberto Sarasketa, Jose Antonio Arrazola, Begoña Arotzena eta Mari Asun Elorriaga.



Ibargarai, 11-13  
BERGARA  
Tel - Faxa: 767058



**MODELO BERRIAK**  
**Kalitate hobea preziorik onenean!**



**OBRAREN PROIEKTUA ERAMATEN DUGU**

**IÑAKI  
JATETXEA**

*Gaurtik aurrera  
egunero zuen  
zerbitzura*

**Eguneko menua / Leku paregabea  
Astelehenetik ostiralera zabalik goizeko 7:00etatik**